AZALPENAK

UMEKERIJAK

LAUAXETA

Irakastolera duaz umiak. Asko ikasterik eztago aspaldijon, baña etxian zereguiña bakarrik emoten daben ezkero, buaz irakastolera. Oporketak zelan egin biar diranobeto ikasten dabe, beste arazorik baño. Peru Praka-gorri jaunak eztaula lortu gura dabeniak? Ikaslak oporra egin dagijela. Urliaren etxian itoyak dagozala? Ikasliak opor.

Betiko lelua orixe yake. Gurasuak ostera, egunero sakelak zabalduten. Irepaste andirik ezpadago be, non eralgi ixango ya ku. Ona lenguan jazo yatana sometxu batekin. Seme au guzurezkuadanik ez uste ixan. Emen idazten dana, neure begijok ikusi baita.

—Aita, diruba biar dot.

—Atzo enentzuzan iru ogerleko emon ala?

—Bai, baña geyago biar dot. Beste liburu batzuk erosi biar ei dira.

—Or etxian dozuz liburubak. Igaz-zeure anayak erabilli euzanak, barri-barri dagoz oraindikarren.

—Baña orreik eztabe balijo...

—Zelako eztabela balijo? Urte baterik bestera, idazkijak aldatuten dabez edo, zer da ba?

—Bai aita. Irakasliak onen beste artzen dau liburu saltzaliakandik urtero idazkijak aldatutearren, bai? eta erosi biarko doguz. Badakixu zer jazo yakon Pepe Jaunaren semiari?.

—Ez ba. Gauza asko jazoten diran ezkero.

—Udan ikasi ta ikasi ibilli da. Balta buruz liburu osua ikasi be. Eldu zan asterketara, ta itaundu eutson an eguan gixon batek: Nun erosi dozuz ikasteko liburubak? —Etxian neukazan anai batenak, eta eztot erosterik ixan. Diru asko eralgi biar dala-ta, aitak esan eustan ez erosteko.

—Ara ba zoyaz etxera, ta neure partez esan egijozu aitari, urte osuan ibilli biarko dozula ikastaruan, baita liburu barijak atzera erosi be. Eralgi gura ezpa eban, urte osuan gastau dagijela. Agur.

—Ori ezin egin leike gixon batek.

—Bai aita, neuke ikusi dot orixe. Kal abasa ederrak emon dautsez mutil gaxuai.

—Tori ba liburu barrijak erosteko txindija. Irakaslian azpijan gagozan ezkero, esrak gura dabena egin biar dogu-ta.

Ementxe dago argiro España'n jazoten dana. Ministro batek igoten dau agintaritzara? Ikaskixunak aldatuten ezpadauz, ministrua ixan danik eztau uste. Gobernubak jausten da? Datorrenak Lagi-barrijak egingo dauz. Bestiak egin dabena lurpera jaurti ezkero, agintaritza ondo osatuten da. Onetan dago España'ko laterrijaren ixatia.

Gurasuai, arazuai eta abarrei egiten dautsoezan kaltiak, eztauke neurlaririk. Munduba ondatuten bada be, gauzak aldatu biar dira. Neronek be oitura auxe daukot. Iñoren etxian sartu ordukoxe, tramankallubak aldatuten asten naz. Erretratu au beste orma orretan obeto dago. Andikua barriz ementxe edertuago. Ikeratuta geratuten dira ostera etxekuak, neure asmuak ikusi ostian. Baña zer daki orrek iñoren etxian biar dana? Urtiak bixigarenok, badakigu gauzak non daguazan ondo ta txarto.

Agintarijen antzekua nazan ezkero, ederto egiña daguala, esango dautsot Marcelino Domingo jaunari ikaskixunakaz egin dabena. Dana aldatu.

Diruba etorriko da andik edo emetik, gustijak ordaintuteko. Liburu barrijak erosi dagijezala umiak bai? eta beste kuntubak or konpon. Egon be pozik dagoz umiak liburutxu barrijakin. Obeto ostera urte gustijan zabalduten ezpadabez.

ERRIJETATIK

EZKORIATZA

¡EUZKOTARRA, ESNATU ZAITEZ!—Deadar eta oju izugarriaz deitzen ari da ama Aberria. Benetan une lepapen aundikoan aurkitzen da eta bere seme daneri deitzen die, dei benetan maitekorra. Ez digu deitzen Euzkadi donokiratzeko beste arazo tarako, ez, gure uzkurtza gordetzeko, gure azaba zarrak zituen oitura ederrak, gure izkuntza berezia, aita eta ama ezaten ikazi gendun euzkera maitea. Orretarako bakar bakarrik deitzen digu gure Euzkadi maiteak. Geu geure burubidien jabe izatea gatik bakar bakarrik.

Urrilla'ren 18'rako dei ori Ezkoriatza'rako egin digu, eta era ontan gertatzen ari dira jai ozpetzuak, Euzko-Etxean zabalkundea eta ikurriñ onezpena egiteko. Kabi polit eta alaitzua aukeratu degu emengo abertzaleok, gure Batzokia jartzeko, errian dan tokirik onenean, eta onela jai bereziak izango ditugu bere zabalkundea egiteko.

Goizean goiz, Euzko-Etxeko txistulariak kale-gira alai bat juaz adieraziko digute jaio berri dan egunan aunditazuna, ondoren abertzale danok Jauna artzera juateko, Gero ezpatadantzari, txistulari eta zuzirien artean atzeginduko dute erri guztia. Amarretan, jaupa nagusi izugarria, erriko abez-batzak abeztuta, eta izlari jakintzu baten gaiñ, izango degu txonitza. Ondoren ikurriñ onezpena; andereño euzkotar zintzo eta begikoa dan batek bezoetan artuko du. Gero, Barrena jaun ozpetzuak zuzenduta, dantzaketa bereziak erriko ezpatadantzariak dantzatuko dituzte. Ordu bate'tan oturuntza, eta ondoren lauretan, itzlari izugarria. "Altzeta", "Lauaxeta" eta Montxon jaunak izango ditugu izlariak.

Au izango degu garrantzirik aundieneko zenbakia, eta notintza ikaragaria emen ikustea uste degu arantzaldean, izlari jakintsu eta ozpetsu oyeri entzutera etorrita. Albo errietatik, Soraluze, Bergara, Arrasate, Aretxaballleta, Gatzaga eta abar, berri onak ditugu era ontan, eta abertzale eta ez diraten danak emen bilduko diratela egun ortan uzte degu. Errian danak bat batean bear ditugu, abertzaleak, eta abertzaleak ez diratenak, batez ere baseritarrak. Zuek nekazariok bear zaitugu. Zuek gure izkuntza eta oitura ederren gordelariok, zuek bear zaitugu, gogo zendoztiñ jun zaitean, pozez beterik ama Euzkadin aldeko itza entzunda, zuen kabi beroak abertzaletazunez betetzera.

Ondoren ditugun egunetan, agerkaia bear dan bezela, eta arazo danen berri emengo degu.

¡Abertzaleak! Atozte Ezkoriatza'ra urrilla'ren 18'an, abertzaletasun azia zabaltzera; Leniz alde bikaiñ onetan, egia erakuztera. Lagundu zaiguzute erri guztia bat batean gurea izaten. Dana Euzkadi gatik berak ordainduko dizute.

ATXOLIN.

TOLOSA'TIK

USOAK, USOAK. — Badute oraintxe naiko zeregin Tolosa'ko eiztari ugariak. Beren garai ontako jarduna, ta ez motza gero, jakiña izaten da; Ernialde'n poliki asi dala uso-igaroketa; Txoritokieta'n bi otza ditula "zerako zerak"; Muga'n berriz, berealdiko "marka" egiñak dirala Berastegi'tarrak; Uli Gorriti, ta Usategi'n ez dakit zer geiago... ta abar. Noski; onelakoak ikasita Tolosa'ko eiztariak eziñ galdirik egon, eta beren guda-asmoak lagunartean azaldu ondoren izkilluak garbitu ta gertuko dituzte, sakelak "cartucho"-z ondo ornitu, ta (auxe bai; nai ta naiezkoa da ta!) soñeko-oñetako "legezkoak", itxurakoak ipiñi ta... ¡leku motellek! or juango dira mendiz gora, "parada" billa, gabeko nik ez dakit zer garaietan, uso batere bizirik ez usteko asmotan.

An mendian, goizaldi guzian, sudurretatik muki-tantoa dariotela, ego aize zakarrari kopeta emango diote, "tiro" banakaen bat bota ere bai, ta, sasi-sastraketa edo erortzen ez bada, uso ergel koskor bat jetxiko dute kalera arro asko, ta, noski ¡aste guzirako berriketa-gaia ere bai!

¡Bejondeizutela, eiztari tolosarrak! ¡Jainkoa'k deizutela "pulso" ona asi dan uso-igaroketa ontan, bañan... itz gutxiago eta uso geiago.

AURRERA. — Gipuzkoa'ko "Concurso de Artistas Noveles" deritzaion batzaldian, bost lauki (cuadro) zintzilikatu ditu gure lagun Imaz'tar Josu, tolosar gaste abertzaleak. Lan txukun eta sarigarriak epaikarien iritziz, 1.000 laurlekoko saria erabaki dute margolari apal eta langille onentzat eta. Tolosar askorentzat, ertilari (artista) berria izango da auxe; batzu-batzuk ordea, ongi genekigun beronen neurrigabeko zaletasunaren berri; ta onetxegatik, oraingo au, ez dala mutillak lortuko duan azkenengo saria derizkiogu.

Zorionak Josu, ta ¡¡aurrera!!

ITZALDIA.—¡Itzaldi egoki ta jakingarria, jun dan larunbatean, Ziaurriz'tar Dorota jaunak Batzoki'n egin ziguna! Euzkadi'ko endorearen Madrid'erako jun-etorria, bertako Alcalá Zamora'rekin egonaldia, eusko-aldunen lan eta lei adoretsuak, eta beste gai eta gertaera entzungarri batzuek erabilli zituan Ziaurriz jaunak, berak oi duan duan euskera errikoi eta jatorrean. Txalo-aldi ederra, gogoz jo genion izketalditxoa amaitzerakoan.

EUZKO GAZTEDI'KOAK. — Datorren 17'an Andoain'go Batzoki irikitzea dala-ta gure antzezlari trebeak, Larramendi ospetsuaren jaiot-errira juatekoak dituzu, ntzoki jai polit bat egitera. "Txinparta Buruzagi" ta "Jo ta uts" antzerki irritsuak eta "Patxiku mutilzarra" bakarrizketa berdingabea antzestu bear omen dituzte Andoaindarrai atsegindu nai noski, ta, lan da lan emen ari dira buru-belarri, iñoiz baño obeto "atera" baietz; euskeraren alde jokaturik, Aberriaren alde asko ta asko egiten dutela ondo baitakite gure gazte langilleak. ¡Ekin eta jarrai!

ZIMITZ.

ARETA ETA LLODIO artian etxia

Etxoñak bixi-irateko salgai dagoz, ur, argi, ducha garage ta gusti, bitxabalertzian. Egin-barrija oraindik.

EUZKADI'n itaundu.

SORALUZE'TIK

Kiñar igarrak baño gar geyago atara dau Emakume Abertzale Batzari ikurrin barria egiteko dala-ta Batzokian iriki genduan arpide edo suzkriziñoak.

Eunda gora laurlekoak batu dira oingotxe. Emonleen izenak ez gaitezen asi ipinten bestela goitik berako galanta bearko litzake ta. Emakumieri enbusterixa pipinbat egitearren naiz da diru ataratzia izan...! baita! Ai gu zein garan!!!

✤ ✤ ✤

Gaur Bergara'ra abertzale asko juango da emetik arratsaldetik batezbe. Badakizu irakurle Emakume Abertzale Batzak erri ortan jai politak dituala gaur beren ikurriña bedeikatzia dabelako.

✤ ✤ ✤

JAIME IRUGARRENA.—Jaun orren eriotza Euzkadi'ko bastar geyenetan lez, emen be, bere jarraitzalleak dituan ezkero mingarria izan da, alderdikide orrentzat batez be. Aste guztian agurtza deuna errezau dabe gabian euren Batzokian. Lora txortak, danik eta ederrenak izanda be otoitz beroakin bardintzekoak diranik ez derizkiogu geuk be ildakoari eskeintzan. Eguenian baita zabaldu zitzen orri batzuk ere baña euzkotar egizko baten gogoa ez dakigu nolan bete liteken eurak. Beti erbesteko Aberria'ri begira begiak eta etxekoa ezagutu ezin... ¡tamalgarri da gero!

Eurak deitzen dioten lez, fueroak, alakok edo bestelakok zin edo juaramentu egin dabela ta ¿nun izango ditugu ba ekartekoak? Ori geuk egin bear dogun lana beste ez da, euzkotar guztiok ezagutu benetako Aberria, maitatu eta bere kateak azkatzen alegindu benetan. Bide ortarako ez da bide oberik, abestiak goraldu, eresiak edo musikak indartu, antzerkiak edo teatroak zabaldu, geure izkuntza ez oinperatu baizik ikasi ta mintzatu... ori guztia bakoitzak biotz-biotzez egiten dogunian naiz karlista, naiz liberal edo naiz abertzale, orduan bai fueruak edo azkatasuna iristeko indarraz zenbatuko dogula.

Baña ¡Jaungoiko maitia! iñork ekartian begira egon bear al'dogu ba oindiño be.

AURRERAPEN AUNDIA. — Aurki, eta ziur txamarra dala esan leike, "Cinema Gayarre'n" zine saratatzua edo sonoro ipiñiko dala entzuten da. Aurrerapen aundia da gero berau erri koskor baten izateko. Ba "Cinema" ori Eibartar batzuk artua da errentan.

✤ ✤ ✤

Barrenetxea eta Arando'tar Peli, Udal idazkaria, amabost bat egun erritik at, España'ko uri naguzietan ziar ibilli-ta etxeratu da.

DRIS-DRAS.

Errediak (muebleak) bear dozuzanean agertu bat egizu

GOIRI'REN ETXERA

ARTEKALLE, 2 GARREAN (arkupean) Eun ola ta eterki ola. Iñun baño merkeago.

ELGOIBAR

OSAKUNTZA. — Arrillaga'tar Iñaki Mirena sendagilliak, eginda oso ongi arkitzen da Loiola'tar Miren, Txaka'ko etxekoandrea.

EZKONTZA.— Mendaro Garagartza'n uztartu dira "Andikoetxe" baserriko neskatilla dan Ulazia Baleriana ta Velloso Colmera Félix, Hervas'ko semia.

JAIOTZAK.—Neskatilla jaio berri bat eduki dute Ariznabarreta'tar Leone-k, eta Etxabe'tar Joseba Mirena "Zabala" baserrikuak.

Baita beste mutiko bat eduki dute Mugertza'tar Joseba Mirena eta San Martin'tar Agirre'k. Zorionak bi gurasoen.

ZOZKERA.—Igandian Donostin eduki dute zozkera edo suertia emengo 27 mutillek, Aprika-rako zozkeratu zan Agirre'tar Edorta, beste guztiak España'k zor edegunа euzkaldunok, ordaintzen.

GORA BERAK.—Jun zan illian ill diranak: Arrizabalaga'tar Markeline, Iglesias Mendata'tar Eladi, Ambrosio Arce, Ansola'tar Apolone.

Jaiotzak: Arriola'tar Balzola'tar Higinio, Arrillaga Larrañaga'tar Andoni, Osoro Larrañaga'tar Felisa, Zabaleta Etxeberria'tar Sabin Justa (euzkel izenduna) Etxaniz Arrizabalaga'tar Bitoria, Orbea Egia'tar Jon Imanol, Opakua Elorza'tar Pantzeska Joseba (euzka izenekua), Ariznabarreta Arozena'tar Maria Begoña.

ELEIZAKUAK. — Artuta arkitzen da Garate Arrizabalaga'tar Andone "Urruzuno Beri"-ko andrea.

BERGARA'RA.— Gai aundia arkitzen da datorren igandian Bergara'ra Emakume Abertzale Batzak antolatu dituzten jaira juateko, batez ere emengo Emakume abertzaliak, arrazoia dute, beroz ari dira ba onetan laister jartzeko asmoz, eta nai dute eta arrazoia dute Bergara'ko Emakumiak geiago dirala ta aren ikasbidean artu eta benetan elgoibarren jarri, diote talde aundia uri ontatik elduko dirala Jaungoikuak, lagun, baita guk gizonezko abertzaleok ere pozek gande Bergara'k abertzaliak besarkatzeko.

¡Elgoibatarrak! Abertzaliak bai emakume ta gizonezkuak guztiok igandian Bergara'ra, emendik bultzia aterako da arratsaldeko ordubietan Bergara'ra, eta onutz zazpirak eta bos minutura eldu.

AIXERIXA.

ZEANURI

AGURTZA DEUNA.—Igaro dan igande'an urtero lez andikiro egin zan ibil-deuna goiko elexatik deun Ixidor elexara agurtza abestuez arratsaldeko itzaldia Angoitia'tar Jaben jaunak egin eban.

NASKALDIJA.—Udaldia igarota Bilbo'ra yoan dira Goikouria'tar Joseba jauna da sendia.

Burgo'tik etorri ta emen izan da Errotaetxe'tar Andoni jauna.

Iruña'ra yoan zan Uriarte'tar Luken aba.

ALDUN DIPUTADU BARRIA.—20.000 ta geyago autarki edo voto'gaz urte eban Robles Arangiz abertzale zintzoak igandean. Zorionak.

EZKON DEYAK.—Dabiltzazanak igartuko Lotxate'tar Jone Arteaga'ko mutillagaz Andrian Urkiaga'ko'en alabea Yurre'ko mutilla'gaz. Zorionak.

ELEIZ ORRIA. — Urrelako zebakiak dakazan gayak. Eleizkizunak erlejiño bearra. Eleizearen Zigorrak, ipuña.

"ARRATI-KO DEYA".—Oso dotore dator da erosi ba danok. "Jaungoiko-Zale" da "Zeruko-Argi" da "Karmengo-Argia" erdu yaku.

ERIOTZA.—Altzurte'ko auzunian ilda aspaldian oso txarto egon dan Narciso (G. B.). Laguntzen dautsegu atsekabean sendiari. Da otoi bat arime'en alde.

Gazteiz da Orozko'tik artu doguz idazkiek iragarten domekan (11) dagozan mitiñek. Na ba agertu bakotxa yoan gura dabena. Orozko'ra basotik zear yoan leiteke gazterie.

EGURALDIA.—Odagoyena agertu yaku guztiz ederra. Emen udea igaro ten egon diren uritarrak etzeetara biortu orduko azo ona ipiñi dau. Guztiz ondo yatorkie artobaba da baserri lanari.

BERRITAR BAT.

MAÑARI

ELEIZKIZUNA. — Igande goizian, Agurtzadun Neskutza'ren opaz Jaunartze asko egin zan. Eta arratsaldian, bespera ostian, ibildeun ederra Agurtza deuna abestuaz egin zan.

JUAN ETORRI.—Bilbo'ra juan zan Gabonak arte Lete'tar Lone neskatilla begikua

—Emen egun batzuk igarotza, lengo astian juan zan Naparrua'ra, Sarobe'tar Jorka Aita augustindarra.

—Eibar'era juan zan Usaola'tar Martiñe.

—Pobeña'tik etorri zan Magunazelaya'tar Basilise

—Algorta'tik, Magunazelaya'tar Joseba.

Emakume-abertzale Batza'ri

Emakumei autarki-jartia dala-ta,
egunetan bai-dabil mar-marka galanta
Erkal-zozolistuak artegatxu barriz,
intxerik bildurtuta... barriketan dabiz
España'n autarki-duñ andrak ez dirala
au, orita bestia... txor-txor bala-bala.
Zeuen emakumiak ezpa'dire gauze,
guriakaitik ¿zetan zabiltze min-luze?
Uri eta baserri, etxe ta baratza,
euzko-emakumiak beti bere antza:
Lanian, jolasian, itzez ta egitez
gure emakumek baño zintzoagorik ez.
Uzkurtzaliak barriz... eta Jeltzaliak?...
neskato onak dira ba gure emakumiak.
Zeben emakumiak ezpa'dira gauze,
ixango dan ederra gaurtik aurrerantza;
Aberatz eta txiro, zar eta gastiak,
Batza ortan sarturik, lan egingo dabe,
uri, eta baserri nagitasun bage
Jeltzaletasunagaz... Uzkurtza, Euzkera,
Euzkadi oro aide batetik bestera;
Erakutsiko dabez itzez ta egitez
dana Jainkoa eta Lagi-Zarra'n maitez,
Eta datozanean auteskunde egunak,
¿nok garatuko dituz euzko-emakumak?
Geuriak ziñegotzi, geuriak aldunak...
Euzkadi'n agintzeko beti euzkaldunak.
Ezkier dakusgu ba geure garaitzia,
Zozolistoak be bai... ¡or dau ba untzia!...
Erkal-zozolistoak au gaitik asarre,
guk barriz geure etxian... gurendari barre
¡Otoi ba euzkotarrak danok otoi egin!
Deun Mikel beti geure aldez izan dedin.

E.'TAR KEPA.

—Urkiola'tik etorrita, eguenian egon ziran Biritxiñaga'tar Joseba ta emaztia.

GEXUAK. — Atutxa'tar Estepan gizona, aspalditxuan geixorik aurkitzen da. Arin osatu.

—Zubizarreta'tar Augustine anderea, luzarotxuan makalik egonda gero, etxetik urtetan lengo ostian asi zan. Osatziagaz poztuten gara.

ERIJOTZA. — Igaro zan larunbatian, Izurtzan il zan Basterretxea'tar Joseba gizona (Jose Beko-Torre) erri onetan ezagun-ezaguna. Obiraltzia, astelen goizian lagun askok lagunduta egin zan.

Jaunak zeruan euki begi.

BIDE BARRIJA.—Artzubi'tik Sagarbaltzeta'raño, bide barrija egiteko asmuetan dabiltz. Eta egingo dan bidia, bitxabal antzekua izango ei-da; belbillak (autoak) igaroteko modukua. Barri-onegaz Urkioleta'ko yentiak asarre eztira izango. Erriра osteria oinkada leunez egingo dabe ta.

ARTUAK ETA.—Soloetan artuak eta indi-babak ederrak agiri dira. Aurten, eguraldi otzak eta euritsubak izan diralako, atzera samar etorri diran arren, lengo egunetako ego-aiziakaz eldu margoa ederto artu dabe. Ta, uste danez, igazitako urtian baño geyago artuko da. Potzeko da Arbijak edo nabuak be, orri guri ta zabalakaz itxura ederreko dagoz. Baita enparau bedar; guztijak be.

GAZTAÑIA.—Aurten gaztañia be, ugeri dago. Zugatz-adarrak betiaren-betiaz berantza makurtuak dagoz. Begiratzia atsegin andija da. Datorren asterantza batzen asiko dira. "San Lucas'en kakua" agertzen ezpada; a ze zeregiña guztijak erazten!

Gaztaña-urte dalako, basetxietakuak pozez dagoz; ba baserritarrentzat, igali au oso onuratsuba izaten da ta.

URKIOLA'N.—Igaro zan igandian asi zan Andoni deun gaztiaren bederatziurrena; urrillan urtero egiten dana. Baita gogo-iñarkunak be, antziñeko oiturari jarraiaz, egun orretan asi ziran. Berbaldijak, Goikoetxea Aita josulagunak ederto egiten dituz.

¡Aintza Jauna'ri ta Andoni deuna'ri!

MAÑARIKO

ONATI'TIK

Aberria laguntza-bearrean arkitzen danean, lorik egiterik ez dago; guziok itxarrik, guziok erne, guziok zutik jarri bear gera, guziok zelaira irten bear gera, Aberriari eusteko. Eusko-Aberriak il bear omen du, euskera il-agiñik omen dago, ala esan du euzko-odola daraman endekatu batek Madrid'ko lege-etxean. Eta ori entzunda oñatiarrok geldi ta besoak batuta egongo ote gera? Ez, eta ez. Oñati'ko emakume zintzoak ezetz diote, lan egin nai dute, euskera, eusko-legeak, eusko-sendia, eusko-uzkurtza edo erlijiñoa zaindu nai dituzte. Nola, baña? Ori jakiteko, orretarako indarrak batzeko gizon eta emakume jakintsu-abertzaleen itza entzun nadute, eta ain zuzen ere orretarako datorren igandean, il onen 11'garrenean, gabeko bederatzietan, erri onetako batzokian Emakume Abertzale Batza'ren izenean ekarrita Urkiaga'tar Estepan'ak (Lauaxeta'k) eta Unzueta'tar Sorne'k itz egingo oñatiarrok.

Erdu, bada, oñatiar emakumeak izlari bikañoi entzutera; gau orretan Oñati'ko Batzokia gonburuz bete dedilla. Batu ditzagun gure indarrak Aberria gaikatzeko, eman gatzazkion buru ta biotz Aberriari, gure ondorengoak onetsi gaitzaten. ¡Gora Euzkadi!—*E. A. B.'ko Batzordea.*

Ludi oruan zer jazoten dan jakiteko, irakurri EUZKADI egunorokua.

EUZKADI sasoiz arrtxeko, arrpidetu zaitez.

OTXANDIYO

EGURALDIYA.—Aspaldi onetan eguraldi otzak egiten deuskuz erri onetan. Aimbes-baba eder ixan da aurten baña egin dabezan leyak eldu barik ixan dirau gastiyak kiskalduta itxi deuz. Ez da ba bakarrik iko erreta ixan. Len ikoak eta oraiñ babak polito polito ezer bagarik itxiko gaitut erri onetan eguraldi yak.

IRA EBAGITEAK.—Ientea zorrotz dabil ire ebagiten eguraldi onak dagozan artean. Bakarrik igarota erri onetako basoetatik, ikusten umore ona eta lapiko eder usaña.

EMAKUME ABERTZALE BATZA. Geldi geldiro baña asi dira erri onetan bere batzar ori gertetan. Ondo begiratu eskero, ikusten da onek daukan garrantzi ardiya bada goguan eukirik oraiñ emakumeak bere autarkiya daukala. Oraiñ artero daukaguzan izparrak gustiz onak dira bada entsun dogunez emakume entsutetzuak etorriko dira itzaldiya egitera egun orretan.

DEUN LUKA EGUNA.—Erri-onetako abertzalearen artean, gogoan artu da egun orretan jan aldi eder bat egiteko, anaitasun, osoan. Zertan esanik ez, ixango dirala tzaldi iragarri bakoak sabela beretu orduan. Aupa mutillak, laster dok geurea ta.

BEROA, BENETAN BEROA...—Oraiñgo auteskunde-etan benetako beroa bota ixan dabe erri onetako carlista askok. Auteskundea irabasita egozala eta autarkirik bota ez egiteak gagozan aldi onetan, uste dabien baño jarrantzi andiyagoz deuke. Bada urten daben aldunak bere alde biar ziran zortzi milla autarki eruan edo ogei milla eruan zertan esanik ez itzal errespetu geiyago ixango dabela, baña danak ez dabe onela oldoztuten katoliku euren burua egin arren eta zelako arizkuan dagon katolikotasunaz ikusi orren. Or konpon.

ANDIKONA.

BILBO'TIK

LANIK EZA.—Alde gustijetan geruago ta gogorrago nabaitzen dira lanik ezaren ondorenak. Eta txarrena, zori gaiztoko gatx oni sendakaya aurkitzeko itxuraik-be ezdagola. Lantokirik geienak lau ta bost egunera urritu dabez asteko lan egunak. Altos Hornos, Babcock Wilcox, eta Euzkalduna lako lantoki aundijak bost egunekuan diñardube, ta zaratia danez laster etorko dira laura. Eta onein antzeko gauzak alde gustijetan entzuten dirala aurtengo negubak latza ta baltza ixango dan antza dakar. Mundu gustijai entzuten jako negarra. Danak txarto dabizala diñoe. Etxaunak ezin eidabez lakatu euren etxe etorrijak. Saloki-etxeak ez-eidabe ezertxobe salduten, ta jakiña, saldu gura dauna txarto badabil erosi ezin dauna ezta obeto ibiliko. Bizarkentzallak-be lengo erdirik ez doiakela ta negar dagije. Bizarra ta uliak bardin urtengo dabela esan bei ba ezta? Ardanetxiak letania bardiña abestuten dabe. Andiki etxietan-be aldi-txar onen ondorenak igarten ei-dira. Neskamiak aurrez bialdu dabezan etxiak asko dira, ta baitabe euren burtzain edo txoperrak bialdu dabezanak-be. Etxe askatako maizterrak, alkar edo errentak, ezingo dautzezela ordaindu jakin erazo bear ixan dautse, euren etxauneri. Eta onetaiko korapilluak egunero sortuten dirala matazia geruago nastuago.

Eskekuak eta lanbakuak egunian baño egunian geiago diraz. Lanbako aunek areatzako egurastokijan batu oi dira. Igaziriko barikuban aunetako aldra aundi bateri, jan da etan epetan egin bear ebela oitu jakon, itxuraz beste uri batzubetakuak baño gitxiau ez ixatiarren edo, ta euren usteak betetzeko asmoz Torrontegi jatetxera biurtu ziran. Ou baña, euren zoritxarrerako, ango atetan egozan morroiak jantzijagaitik edo, ostatari bakanak eretxi itxuria-ta, jan-gelara bidea erakutsi bearrean, txiñelai deitutea etxaken oitu ba? Eldu ziran txiñelak eta aretako aldijak egundoko ariñen egin be mutillek, ango atetan nabaitzen diran zaltza usain gozotxuak artu ondoren len baño gogo obiaz. Egun txarra ixan eben.

Emeti aurrera onetaiko jasoerak obeto ixango doguz gauzak apurtxo bat otonduten ezpadira. Eta atonduteko biderik iñun agiri ez dan lez, aurtengo neguba bekoki illunaz aurkestuten jaku. Orraitiño pozgarri bat badogu. Or Udalean lentxubago osatu zan batzar baten gure Indaleti'k, emen baño beste erri-alde batzubetan txarrago egozala esan euskun, eta esakun batek diñoan lez "batzuben zori-txarra bestien pozgarri" bada, aor nundik nora negua ondo igaroteko bidea dogun euzkaldunok, aren berba mamintsuak zer jan ixango dabe-ta. Nik neuk, bakit negua ondo, nok igaroko daben, eta zuk-be bai ezta irakorle?

ABELETXE.

ABADIÑO'TIK

Aspaldian ixil ixilik euki nabe. Geure izparringi maitea ixildu ezkero, Gaztelupe be, ixildu biar. Baña biotza, lapiko irakiña lez, pil pil, bitartian euki dot. Zeinbat eta estuago egiten eben gure aberri maitea, maitasuna sakonago sartzen iatan. Azkatasuna aoan sarritan erabilten dabe, baña agipenetan eurentzako bakarrik nai dabe. Orreik esaten dabena lenengoan asi ta azkeneraño, guzurra da. "Libertadea" esaten dabe itz guztietan bai dirala errepublikanu ta socialistak, gero euren aurka dabizan izparringi (periodikoak) gelditu. Nun izgok ba ik esaten doan "libertade" ori? Zubek olakoak zarie gauza guztietan.

ZORNOTZA'RA.—Mitiñera, belbil andi bat artuta, abertzale asko ioan ziran. Aurrera mutillak, eta ez gelditu Euzkadi gaizkatu arte. Izugarrizko urteyerea ta sarreierea erriari egin eben.

EMAKUME abertzale batza aldi gixi barru ipinteko gogoa daukie. Onetarako euskaldun emakume guztiak izena emoten ezpadabe, gure aberrirako maitasun andirik eztabe erakutsiko.

AUTESKUNDIAK.—Gizonak ardura gitxi dautsie igandeko "botaziñoari". Neure eskuan ba'lego, botoa emoten eztaberari, kendu egingo neuskioe. Lotsagarria da, dirue ta yanagaitik bakarrik "botoa" emotea. Eskerrak orain, emakumak, orreik oitura deungok kenduko dauskuezala.

MIREN'EN alabak igazi zan igandian batzarra euki dabe, bazkintza artezkaria izentetako. Auteskundiaren bidez egin zan Solozabal'tar Ilari andereñua Lendakari, Munitxa'tar Basile idazkari ta Arrinda'tar Pelipa diru zain. GAZTELUPE.

EUZKO-TXINPARTAK

EGUN-BATZUK ATZERRI ALDEAN

ZARAGOZA'N

IX

Astelen Arratsaldeko laurak inguruba da, Zaragoza'n nagon bitartian irugarrenez sartu naizenean Pilare'ko Ama Neskutza'ren gotertxaun edo katedral zarrean. Goizetik, nere zeregiñen laguntzalla txaiderik-txaide erabilli detana, irurogei urtedun "mañico" leyal bat da: txapel oker edo "godabizil" izana, berak aitortu didanez. Eta zer esanik ez, "mañico" guziyak bezela, "Pilarica"ren maitale itxuba dala aure.

Oso elizkoya eta Jaungoiko-zale aundiya dala aitortu dit; baña ezkondu zan ezkero eztala beñere aitortu. ¡Olakoxe orokar edo "katolikuak" ikusten dira alde abetan.

Ala ere, itzetik-ortzera entzun izan degu, Euzkadi'n zenbaitegandik: "La España católica" itza. Nik Euzkadi'tik irten nitzanetik eta onera arte, ez det aurkitu itz ori egiztatuko duan egintzarik. Aurrerago... izan diteke ikustea. Aldiz itz egingo degu.

Eta goazen arira.

Esan bezela irugarren aldiz sartu-gera Pilare'ko gotertxaun edo "katedralean", eta astiro-astiro berrikusi-degu.

Aurreko idazkiyan esaten nuan bezela, oso zarra nola baitan, eutsigarriz eri-dira lan ikaragarriyak egiten ari-dira barruan, ortarako aragoitarren artian, ezker eta eskubikoen artian bildu diran "lau milloi laurlekoaekin".

Maitetasun itxuba bai-dute "mañicoak" beren Pilare'ki Ama Neskutza'gana eta guziyak beren "limosnatxoa" egin dute.

Nere aizkide zarrak poztasun eta alaitasun aundi batekin bertako ikuskirik aipagarriyenak erakusten dizkit.

Txadonan sartuta eskubira, arrizko lauki edo "koadro" eder bat ikusten da orma barruan, eta berari begira gaude.

—Soldevilla kardenal zanaren illobiya da au— esaten dit nere laguntzalleak.

—¡A, bai! Gaizkille batzuek erail zutenarena izango da au?

—Bai, arrentxena da.

—¿Nolaz izan zan erailketa ori?

—Egunero bezela bere idazkariyakin berezibillean "Herminillo"ra zijuala, bere ardura pean zeukan ikastola ikustera, eriyotzgille batzuk tiroz il zuten. Eta aren idazkariya ere iya illean utzi zuten.

—¿Noiz gertatu zan ori?

—Zortzi bat urte inguru uste det izango dirala. Idazkun ontan obeto ikusiko degu...

Eta arrizko idazkun artan auxe irakurtzen da:

"*R. I. P.—In pace Domini.—Doctor Joanés cardinalis Soldevilla Romero, archiepiscopus Caesaraugustanus, mortus est die IV, men, sis, Anni MCMXXIII. Orate Frates.*"

Idazkun onen gañekaldian, txinkiliska, Bolibia, Nikaragua, Ingelanda'ko ikurriñak ageri-dira.

Barruruntz, txadonaren zutiko edo "koluna" aundiyen egaletan, txingiliska, beste ainbat ikurrin ageri-dira: ludi guzikoak noski, esan digutenez.

—Ikurrin guzi abek etzerritik "pelegrinaziyoan" etorrita utzitakoak dira emen. Ortik ezagutuko dezu gure Ama Neskutza zein entzute aundikoa dan ludi guziyan —diyo nire lagunak.

—Ikusiya dago. Eta zuek, zargozatarrok, asko maite dezut te...

—¡Baita aragoitar guziyak ere! ¡Ikusiko bazendu nola egoten dan txadon au bere zaindari egunean, urrillan 3'tik asita ikaratuko ziñake emen izaten dan oztearekin!

—¿Aurten ere bai?

—¿Zergatik ez bada?

—Ba... orain "errepublikan" nola gauden, eta Udala ere erkaltzalien eskubetan nola dagon...?

—¿Eta zer? Erkaltzale eta bakaltzale, emen danok-gera "Pilarica"ren zale; eta egon ziur, Udalak ere urtero bezela lagunduko dula, Zaragoza'ri emon orduan egiten diran eleizkizunak kentzea, ezpata zorrotza biyotzean aragoitar guziyori sartzea izango litzake-ta.

Eta urrengo egunean orixe bera irakurtzen nuan, bertako izparringi batean. Beraz, aurten ere, beste urtetan bezela, eleizjai gorenguak egingo dira "Pilariketan", Zaragoza'n, Udal edo Ayuntamentu erkaltzaleak lagundu-ta. ¡Olakorik!

✤ ✤ ✤

Pilare'ko gotertxauna (catedral) ikusi degu dana; azkenik 'lurrazpiyan dauden illobi edo "sepulturak" ere bai, inbat gotzain eta eleiztar ospatsuren illobiyak dira abek.

—"La Seo" deritzayon gotertxaun edo "katedrala" ikusi biar degu orain—diyo nere lagun zarrak.

—Bai, bai; pozik alare. ¿Laizter aldago?

—Berialaxe.

Eta oinkada batzuk eman orduko, bertan giñan. ¡Ze gauza itxusi ta zatarra, kanporik begiratuta!

Baña barrura sartutakoan... ¡ene! ¡Ura gauzaren ederra! ¡Ura gauza ikusgarriya! ¡Ura gauza zoragarriya!

Egun oso-osoa errezki ta atsegiñez igaro diteke bertan ango erti-lan miragarriyak ikusten. ¡Zenbaterañoko aberastasuna ote-dago an! Jaingoak daki.

Adi-adi, aspertu gabe gaude, gauza eder baten ondoren, beste bat askoz ederragoa ikusten, deadar aundi batek adierazten digun arte, *iritzi dala atiak isteko orduba* eta irtetzeko barruan dauden danak...

¡Tamala! Bertako ainbat ikusgarrizko irudi eta ertilan arrigarriyetzaz ezer idazteko betarik ez-digutelako eman. Eta bigarren deadarrean, onik-onenean gaudenean, irten egin biar izan degu, tamalez beterik, ain atsegin izan zaigun gotertxaun zar, ikusgarri eta ospatsu artatik, beste txadon nagusi batzuek ikusten jarraitzeko... urrengo idazkiyan al